



KUTXA Enplegatuen Elkarte	Xenda-zaletasun atala
122. zka 1. etapa GR-283	Segura-Brinkola/2017-3-11/12

Adiskide mendizaleok:

Joan zen hilean Ardoaren eta Arrainaren Ibilbidea, GR-38, Bermeon amaitu ondoren, ilusio handiz ekiten diogu beste erronka bati azken urteotan egiten ari garen “Tbilaldi Handien” bilduma apalerako.

Idiazabal Gaztaren Ibilbidea edo GR-283 Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntza, Landa Garapen eta Turismo Sailak sustaturiko ibilbidea da, eta Gipuzkoako Mendi Federazioak homologatua. Aspaldiko garaien erlikia den Seguratik abiatuko gara, Erdi Aroko jauregien fatxadetan bere harresien barruan sorturiko leinargien armariak dituen herritik.

Herri honetatik Zerainera, historian zehar aurrekoarekin loturik egona 1384. urtetik, non nabarmentzekoak diren Jauregi oinetxea eta Jasokundearen eliza, astroen irudikapenak dituen ponte edo bataiarri gotikoarekin, Kristo erromaniko eta 1457. urteko hilobi gotiko batekin. Meatzaritza eta burdingintza dira ibilbideko lehen zati honen protagonistak.

Gero Mutilora iritsiko gara, hau ere Segurari elkartua eta 1615. urtera arte “Villa” (Hiribildu) titulua lortu gabea, non nabarmentzekoa den San Miguel eliza, nabe bakarrekoa, XVIII. mendean handiagotua. Eta hemendik bidegurutze garrantzitsua den Santa Marina guneraino. Eta Mirandaolako burdinola historikora jaitsiko gara. Mirandaola burdinola izen bereko parkean dago, eta Legazpin XV. mendean zeuden zazpi burdinoletatik geratzen den bakarra da. Bere instalazioak XIX. mendean itxi zituen arren, 1952an zaharberritu zuten Patricio Etxeberria eta Teresa Agirrerren mezenasgoari esker.

Hemendik, oso gutxi falta zaigu geure bukaerara iristeko, Legazpin dagoen Brinkola izeneko landa-auzora.

Animo, mendizaleok, natura zain dugu eta!!!

Ibilbidea: Segura-Brinkola

Beharrezko denbora										5 ordu	
Goranzko desnibel metatua										597 metro	
Beharanzko desnibel metatua										404 metro	
Zeharretara egin beharreko distantzia										17.440 metro	
	Inguru a	1		Orientazioa	1		Joan-etorria	1		Esfortzua	3

Irteera-lekua	Bilbo plaza (Bus galeakua 17/24) eta Pio XII.aren plaza (Bus galeakua 24/27)
Aurkezteko ordua	07:50 (Bilbo plaza) eta 08:00 (Pio XII.aren plaza)
Irteera-ordua:	08:00 (Pio XII.aren plaza)
Bazkaria	Xxxxxxx jatetxea.
Prezioa	30 euro

Izena emateko azken eguna: 2017-3-9ko 12:00etan

Oharra: a/Ez badago gutxieneko parte-hartzaile kopururik, irteera bertan behera geratuko da.
b/ Eguraldiaren iragarpena txarra izango balitz larunbaterako, igandean egingo litzateke ibilaldia.

Izen-emateak egiteko: Alberto Lahuerta (656-721.208/Senderismodad@gmail.com) eta José Ignacio Acuña (943-31.02.52/joseig15@gmail.com).

DAD/Senderismo/Kutxa/Alberto Lahuerta-José Ignacio Acuña

